

5.3.

ARGI IBILI



1.- Haritzek atzo gauza bat esan zuen eta gaur beste bat egin du. Zer egin du Haritzek?

HITZA JAN

2.- Arrautza frijitu dut. Zeintzuk dira arrautzaren bi osagarriak?

ZURINGOĀ ETA GORRINGOĀ

3.- Ane onegia da eta denek nahi dutena egiten diote. Zer egiten diote Aneri?

BURUTIK BEHERA KĀKA

4.- Mahaia jartzen ari naiz eta bi plater mota behar ditut. Zeintzuk dira?

AZALA ETA SĀKONA

5.- Xabiri adarra jo nahi genion, baina konturatu delakoan gaude. Zer egin du Xabik?

USĀINA HARTU

6.- Naia otordu guztietan berdin dago. Ez zaio ezer gustatzen eta oso gutxi jaten du. Nolakoa da Naia?

MIZKINA

7.- Asier gaur ez da eskolara joan. Zer egin du?

PIPER EGIN

8.- Anderrek eskolako lanak azkar amaitu nahi ditu eta horretan ari da gogoz. Nola ari da lanean Ander?

BURU BELARRI

9.- Patata tortilla egiteko patatei azala kentzen ari naiz. Zertan ari naiz? Patatak...

ZURITZEN

10.- Santa eskean Santa Ageda aurreko egunean joaten da. Noiz joaten da?

BEZPERĀN

11.- Kroketak arrautzaren ondoren zerez biltzen dira?

OGI BIRRINEZ

12.- Auzoko Jose hil dela entzun dugu. Zer esaten dugu orduan?

GOĀN BEGO

13.- Janirek bi urte ditu eta argia pizteko iristen da.

OZTA-OZTA

14.- Joseba bihurria bada ere mutil ona da, baina jendeak gaiztoa dela dio. Josebari jendeak dioena ez zaio inporta.

BOST AXOLA

15.- Izaskunek oso egun txarra izan du eta gainera Iñakik jo egin du. Orduan Izaskun...

SUTAN JARRI DĀ

16.- Jolastokira irteteko gogo bizia du Mirenek. Miren jolastokira irteteko...

IRRIKĀN DĀGO

17.- Bazkaltzen ari ginela monitoreak sartu dira. Zer esan digute?

ON EGIN

18.- Josune pilotari ona da, baina oraingoan gaizki eman dio pilotari. Zer egin du?

KĀLE

19.- Arantzari behera begira lo egitea gustatzen zaio. Nola egiten du lo Arantzak?

AHOZPEZ

20.- Iluntzen hasten denean etxera joan behar dut. Noiz joango naiz etxera?

ILUNĀBĀRREĀN

ARGI IBILI



21.- Mirenek makila bat hartu eta bere nebari begian sartu dio. Mirenek bere nebari bat egin dio.

ASTAKERIA

22.- Estik Ainarari hurrengo egunean lanak egiten lagunduko diola agindu dio. Zer egin du Estik?

HITZA EMAN

23.- Iratxek atzo parranda handia egin zuen eta oso berandu oheratu zen. Zer du gaur Iratxek?

BIHARAMUNA

24.- Anek sagar bat jan du. Zer botako du zakarrontzira?

MUTXIKINA

25.- Olatz txikia da eta txistua erortzen zaio ahotik. Nola dago Olatz?

ADURRA DARIOLA

26.- Baserrian askari berezia prestatzera goaz, txitxi burruntzi. Jonek burruntzian txorizoa jarri eta sutan utzi du. Bitartean Amaiarekin entretenitu da. Sutara joan denean, nola aurkitu du txorizoa?

KISKALITA

27.- Esnea zaintzen ari nintzen, baina irakin duenean lapikotik kanpora erori da. Zer gertatu zaio esneari?

GAINEZKA EGIN DU

28.- Automobiler hondartzara gentozela, beste automobil batek kolpea eman dio gureari. Nola gelditu da automobila?

MAILATUTA

29.- Tomas puzzlea egiten ari zela Xabier etorri da kalera joateko deitzera eta biak joan dira. Zer egin du Tomasek puzzlearekin?

BERTAN BEHERA UTZI

30.- Mahaia garbitzeko zapi bustia behar dut. Zer eskatu behar dut?

MOLTOA

31.- Mirenek praka berriak erosi ditu. Zer esango diot?

OSASUNEZ URRATU

32.- Arropa, kanpoko barrura begira jarri dut. Nola jarri dut?

ITZULITARA EDO BARRUKOZ KANPORA

33.- Mirenek 70 urte ditu, baina mendira igotzeko ondo moldatzen da. Zer esaten dugu Mireni buruz?

SASOIAN DAGOELA

34.- Goizean arropa jantzi eta gauean

ERANTZI

35.- Anek ez du bere logela txukundu, arropak eta jostailuak botata utzi ditu. Nola dago bere logela?

HANKAZ GORA

36.- Jon txikia da eta belaunak eta eskuak lurrean dituela dabil. Nola dabil?

KATAMAR EDO ARRASTAKA

37.- Andereñok bi goxoki ditu denon artean banatzeko. Nola konpondu dezake arazoa?

ZOTZ EGINDA

38.- Jertsea etiketa aurrealdean duela jarri dut. Nola jarri dut?

ATZEKOZ AURRERA

39.- Amaiak uste zuen atzoko partiduan Eugik irabazi zuela, baina irabazlea Beloki izan zen. Zer gertatu zaio Amaiari?

OKER ZEGOELA

40.- Hanka baten gainean saltoka nabil. Nola nabil?

TXINGOKA

ARGI IBILI



41.- Aspertuta nago, logura naiz eta ahoa zabaltzen dut. Zer egiten dut?

AHARRAUSI

42.- Mikel biluzik dabil kalean. Nola dabil?

LARRUGORRITAN

43.- Lehen ez didazu lagundu nahi izan, ba orain...

HOR KONPON

44.- Lorea beti andereñoen ondoan eta berari gauza politak esaten aritzen da. Zertan ari da Lorea?

ZURIKERIETAN

45.- Belar gainean oinetakorik gabe ibiltzea oso atsegina dut. Nola nabil belar gainean?

ORTOZIK

46.- Jone lurrera erori da eta min hartu du. Lurrean etzanda dago eta ez du erantzuten. Nola dago Jone?

KONORTEA GALDUTA

47.- Sagar hau ustelduta dago, baina bestea ez. Nolakoa da bigarren sagarra, ustelduta ez dagoena?

ZINTSUA

48.- Niri bazekien batek kontatu dit. Nola jakin dut?

BIDE ONETIK

49.- Bide hau hartu dugu bestea baino laburragoa delako. Zein bide hartu dugu?

BIDE ZIDORRA

50.- Gaizkak beste guztien gauza txar guztiak kontatzen ditu. Zer egiten du Gaizkak?

BESTEEN TRAPU ZIKINAK EGUZKITARA ATERA

51.- Orain arte umore onez nengoen, baina zuk haserre bizian jarri nauzu. Zer egin didazu?

NEURE ONETIK ATERA

52.- Jon txikia da eta gaueko hamaikak dira, aharrausika, negarrez eta haserre dago. Nola dago Jon?

LOGURAK JOTA

53.- Ez dakigu nork dakien. Nork daki?

AUSKALO

54.- Batzuetan, mendira joaten naiz, baina gutxitan. Noiz joaten naiz mendira?

NOIZIK BEHIN

55.- Iñakik "hip" "hip" egiten du. Zer du?

ZOTINA

56.- Ane oso altua da eta ez da atetik pasatzen. Zer egin behar du?

MAKURTU

57.- Anek Mikel haserretzea nahi du eta bere ondoan dabil galderak egiten, ukitzen eta jotzen. Zertan ari da Ane?

ZIRIKATZEN

58.- Korrika bizian etorri naiz eta ezin dut hitz egin. Nola nago?

ARNASESTUKA

59.- Garazik basoan dabilela besoan sasi batekin zauri txiki bat egin du. Zer egin du Anek besoan?

URRATUA

60.- Lehen gizon hau oso zintzoa zen; baina asko jan, edan eta parrandan aritu ondoren. Nola dago orain?

ALFERRIK GALDUTA

61.- Atzo gauean erromerian izan ginen. Noiz izan ginen erromerian?

BART

ARGI IBILI



62.- Gaur mendira joateko oso goiz jaiki gara. Une horretan eguzkia irteten ari zen. Nola deitzen zaio une horri?

EGUNSENTIA

63.- Orain bi egun Kepa eta Zuriñe galdu egin ziren Bilbon. Noiz galdu ziren?

HERENEGUN

64.- Lantegi bat jarri dugu, baina gaizki joan da eta dena galdu dugu. Zer egin du lantegiak?

PORROT

65.- Ander gaixorik dago eta sukarra du. Une batzuetan, hotzez, dardarka egiten du. Zer du Anderrek orduan?

HOTZIKARAK

66.- Nereak komeni zaiona bakarrik entzuten du. Zer egiten du?

ENTZUNGOR

67.- Olatz beti gauza bera esaten ari da. Nolakoa da Olatz?

GOGAIARRIA

68.- Itsaso etxetik joan eta lanean hasi da. Zer egiten du Itsasok?

BIZIMODUA ATERA

69.- Miren txikia da eta mukiak ditu. Zapia sudurrean jarri eta zer esaten diozu?

ZINTZ EGIN

70.- Xabier ez da isiltzen. Gogaikarri xamarra da eta inork ez dio egiten.

JARAMONIK

71.- Mikel eta Ane inauterietarako gauzak prestatzen ari dira eta Enekeri ez diote ezer esan nahi, baina Enekok ate ostetik dena entzun du. Zertan ibili da Eneko?

ZELATAN

72.- Itziar eta Imanol borrokan ari ziren pilota bera nahi zutelako biek. Itziarrek pilota hartu eta alkandora eta bularraren artean sartu du. Non gorde du pilota Itziarrek?

GOLKOAN

73.- Ezkutaketan jolasten ari gara eta inork ez ikusteko lurretik noa? Nola mugitzen ari naiz?

TATARREZ EDO ARRASTAKA

74.- Mirenek gutxi gora-behera hogeit hamar kilo pisatzen du. Zenbat pisatzen du Mirenek? Hogeit hamar kilo...

INGURU

75.- Orain dela hiru urte ikusi nuen Eneritz. Noiz ikusi nuen?

ASPALDI

76.- Nereari txakurra hil zaio eta oso triste eta etsita dago. Zer moduz dago Nerea?

LUR JOTA

77.- Ane eta Xabier anai-arrebak dira eta amak 5 euro eman dizkie bien artean banatzeko. Nola dituzte 5 euroak?

ERDIBANA

78.- Zortzietako telebista-saioa ikusi nahi dut, baina zazpi eta erdiak dira eta eskolako lan pila egin behar dut lehenago. Zer moduz ibiliko naiz bukatzeko?

ESTU ETA LARRI

79.- Amak esan dit eskola bukatu eta ahalik eta azkarren etxera joateko. Etxera noiz joateko esan dit amak?

LEHENBAILEHEN

80.- Irakasleak egunero zigortzen du Julen, baina Julen ez da gaiztoa. Irakasleak Julen du.

BEGITAN HARTUTA